


Euskal AEko merkataritza sektoreko salmentak % 0,7 igo dira 2024ko hirugarren hiruhilekoan

Urteko metatuak % 0,4ko jaitsiera ageri du salmentetan

Eustaten datuen arabera, *Merkataritza* sektoreak % 0,7 egin du gora urte artean 2024ko hirugarren hiruhilekoan, prezio konstanteetan eta egutegiaren ondorioak atera ondoren. Sektore honek barne hartzen ditu *Handizkako merkataritza*, *Txikizkako merkataritza* eta *Motordun ibilgailuen salmenta eta konponketa*.

Aurreko hiruhilekoaren aldean, dagozkion urtaro-eraginak kenduta, salmenten hazkundera % 0,1ekoa izan da hirugarren hiruhilekoan.

≡ Merkataritzako indizearen urte-arteko aldakuntza-tasa. (%) Jaiegunen eraginetatik zuzendua. Prezio finkoak



Iturria: Eustat. Merkataritza indizea

Merkataritzaren barruan, prezio finkoetako salmenten urte arteko bilakaera positiboa izan da *Motordun ibilgailuen salmenta eta konponketaren* sektorean eta *Txikizkako merkataritzan*: % 3,5 eta % 4,2 hazi dira, hurrenez hurren. *Handizkako merkataritzaren* sektorean, aldiz, salmentak % 1,9 murriztu dira aurreko urteko hirugarren hiruhilekoaren aldean.

2024ko bigarren hiruhilekoari dagokionez, eta dagozkion urtaro-eraginak kenduta, *Txikizkako merkataritzaren* salmentak % 1,7 igo dira. *Motordun ibilgailuen salmenta eta konponketa* eta *Handizkako merkataritzan*, aldiz, hiruhileko arteko salmentak % 1,9 eta % 0,9 jaitsi dira, hurrenez hurren.

Euskal AEko merkataritza-indizea.Urte arteko eta hilabete arteko aldakuntza-tasak (p). 2024/III

	Prezio finkoak		
	t / t-4	t / t-1	A (t) / A (t-4)
INDIZE OROKORRA sektorearen arabera	0,7	0,1	-0,4
Ibilgailu motordunen salmenta eta konponketa	3,5	-1,9	9,5
Handizkako merkataritza	-1,9	-0,9	-3,3
Txikizkako merkataritza	4,2	1,7	2,2
INDIZE OROKORRA lurralde historikoaren arabera			
Araba/Álava	0,8	1,0	-1,7
Bizkaia	0,4	-0,3	-0,4
Gipuzkoa	1,2	0,4	0,4
ENPLEGU-INDIZEA	2,1	0,5	2,2
Euskal AE			

(p)Behinbehineko datuak

t / t-4 Urteen arteko aldakuntza. Egutegi eraginak zuzendutako datuak

t / t-1 Hiruhileko arteko aldakuntza. Datu desestazionalizatuak

A(t) / A(t-4) Urteen arteko aldakuntza urte honetan zehar. Egutegi eraginak zuzendutako datuak

Data 2024ko Azaroaren 14a

Iturria: Eustat. Merkataritza-indizea

Hiru lurralde historikoek emaitza positiboak izan dituzte prezio finkoetan, aurreko urteko hirugarren hiruhilekoaren aldean. Gipuzkoan, sektoreko salmentek urte artean % 1,2 egin dute gora, Araban % 0,8 eta Bizkaian % 0,4.

Aurreko hiruhilekoaren aldean, 2024ko hirugarren hiruhilekoan salmentak % 1,0 igo dira Araban eta % 0,4 Gipuzkoan, baina Bizkaian % 0,3 jaitsi dira.

2023ko hirugarren hiruhilekoaren aldean, Euskal AEko *Merkataritza* sektoreko landunen indizea % 2,1 igo da. Bestalde, 2024ko bigarren hiruhilekoarekin alderatuta, % 0,5eko igoera ikusten da.

Urteko metatuak % 0,4ko jaitsiera erakusten du sektore osoan, *Handizkako merkataritzak* eragindakoa, hiru hiruhilekoetan -%3,3ko metatuarekin. *Ibilgailuen salmenta eta konponketaren* salmentak, aldiz, % 9,5 hazi dira aurrekoan, eta *Txikizkako merkataritzaren* salmentak % 2,2.

INFORMAZIO-OHARRA

Eustatek eskerrak eman nahi dizkie informazioa biltzen lagundu duten establezimendu guztiei. Horiei esker, hiruhileko honetako indizea laginaren % **97,17ko estaldurarekin** kalkulatu da.

Informazio gehiago:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

C/ Donostia-San Sebastián, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prensa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tlf: 945 01 75 62